**Espediente zk./**Nº Expediente: 2024DBD0028
**Gaia/**Asunto: 6.3. DIRULAGUNTZA LERROA: INAUTERIAK 2025 – LÍNEA DE SUBVENCIÓN 6.3: CARNAVALES 2025
**Eskatzailea/**Solicitante: ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)/**DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

**6.3. DIRULAGUNTZA LERROA: INAUTERIAK – 2025. OINARRI ESPEZIFIKOAK.**
**LÍNEA DE SUBVENCIÓN 6.3.: CARNAVALES – 2025. BASES ESPECÍFICAS.**

**1- Dirulaguntzaren xedea**

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Errenterian kokaturiko pertsonek, elkarteek edo irabazi-asmorik ez duten bestelako entitateek 2025eko Inauteriak direla-eta antolaturiko kultur jardueretako programak kofinantzatzeko helburuarekin.

**2.-Dirulaguntza zein partidaren kargura egingo den eta guztirako gehienezko kopurua.**

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldez aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean

Inauteri jarduerak kofinantzatzeko diru-laguntzen zenbatekoa 2025eko honako partidaren kargura izango da:

- 1.0830.481.02.338.00: Dirulaguntzak Inauteriak

Diruz-lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 22.000,00.-eurokoa da. Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren

**1- Objeto de la subvención**

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades vinculadas a los carnavales de Errenteria, organizadas y llevadas a cabo por particulares, asociaciones u otras entidades sin ánimo de lucro radicadas en el municipio, con motivo de los Carnavales del año 2025.

**2- Partida presupuestaria a la que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las misma.**

En base a la norma municipal de ejecución presupuestaria, esta convocatoria está siendo tramitada anticipadamente; es decir, en un ejercicio presupuestario anterior a la de su resolución y ejecución del gasto.

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas vinculados a los Carnavales irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2025.

- 1.0830.481.02.338.00: Subvenciones Carnavales

La disponibilidad presupuestaria para esta linea de subvención asciende a 22.000,00.- euros. Si mediante la correspondiente modificación de crédito se incrementara la cantidad, se podrá proceder a una

baimentze berria egin liteke.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2025eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

**3.- Pertsona edo entitate onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.**

Oro har, diru-laguntzetarako aukera izan dezakete Errenterian 2025eko Inauterietan kultura intereseko jarduerak gauzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko Pertsona fisikoek edo entitate juridikoek.

Salbuespen gisa, Errenteriatik kanpo kokaturiko pertsonek edo entitateek diru-laguntzetarako aukera izan dezakete, jardueraren zati nabarmen bat udalerrian bertan gauzatu edo herriarentzat interesgarria dela jotzen bada.

Irabazi-asmorik gabeko entitatetzat hartuko dira elkartearen helburuekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarteak lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutena.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

nueva autorización del gasto imputable a esta convocatoria.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de esta convocatoria.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2025 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

**3.- Personas o entidades beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**

Con carácter general podrán optar a las subvenciones cuantas personas físicas o entidades jurídicas sin ánimo de lucro radicadas en Errenteria que realicen actividades de interés cultural que se desarrollen durante los Carnavales del año 2025.

Excepcionalmente, podrán acceder a las ayudas las personas o entidades radicadas fuera de Errenteria cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Se consideran entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

Documentación a presentar con la solicitud:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Eskatzaileek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, Errenteriako Udalak 2025. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako agiri hauek:

- Eskaria egiten duen erakundeak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

- Proiektuaren xehetasunak edo interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazio edota dokumentazioa (aukeran)

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea.**

Diru-laguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta 10 lanegun epean amaituko da.

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, de acuerdo con lo establecido en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025, la siguiente documentación:

- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

- Detalle del proyecto o cualquier otra información o documentación que considere de interés (opcional)

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.

- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

**4.- Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará transcurridos 10 días hábiles



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, jarraian agertzen den taularen arabera, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatuko da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, aurrerago adieraziko den mugarekin.

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

**5.- Criterios de valoración de las solicitudes.**

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, de la manera que aparece en la tabla que sigue a continuación, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite que más adelante se indica.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**6.3 DIRULAGUNTZA LERROA: INAUTERIAK 2025 – IRIZPIDEAK**

*LÍNEA DE SUBVENCIÓN 6.3: CARNAVALES 2025 – CRITERIOS*

**KONPARTSAK/COMPARSAS**

| | | |
|---|---|---|
| **Ostiral edo igandean egun batean desfilatzen duen elkarte edo ikastetxeari.** | **75 puntu bitarte/ Hasta 75 puntos** | **Si es una Asociación o colegio que desfila un día en viernes o domingo.** |
| **Parte hartzaile kopuruaren arabera** | **45 puntu bitarte/ Hasta 45 puntos** | **Dependiendo del número de participantes** |
| 20 eta79 kide bitarte | **20** | De 20 a 79 participantes |
| 80 eta 120 kide: | **35** | De 80 a120 participantes |
| 121 kidetik gora | **45** | Más de 121: |
| **Parte hartuko duten emakume/gizon/beste identitate kopuruaren arabera:** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Dependiendo de la proporción de mujeres/hombres/otras identidades participantes** |
| Orekatua | **10** | Equilibrio (40 – 60 %) |
| Desoreka | **5** | Desequilibrio |

| | | |
|---|---|---|
| **Jarduera euskaraz garatzeko hartu diren neurriak** | **10** | **Medidas adoptadas para garantizar la presencia del euskera en la actividad.** |
| idatzizko euskarri guztietan euskarari lehentasuna ematen zaio. | **2** | Se prioriza el uso del euskera en todos los soportes escritos. |
| Konpartsako kideei ematen zaizkien argibideetan euskarari lehentasuna ematen zaio.<br>(ahozko zein idatzizkoa) | **4** | Se prioriza el uso del euskera en las indicaciones que se les da a los miembros de la comparsa (oral y escrita) |
| Desfilerako aukeratutako kanten artean euskal kanturik ere bada | **4** | Se ha introducido alguna canción en euskera el el repertorio de música del desfile |

| | | |
|---|---|---|
| **Inauteri Batzordean Parte-hartze aktiboa** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Participación activa en la Comisión de Carnavales** |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

| | | |
|---|---|---|
| **Larunbatean eta igandean (biak barne) desfilatzen duen elkarte edo ikastetxeari.** | **100 puntu bitarte/ Hasta 100 puntos** | **Si es una Asociación que participa en el desfile del sábado y el domingo (ambos inclusive)** |
| **Parte hartzaile kopuruaren arabera** | **70 puntu bitarte/ Hasta 70 puntos** | **Dependiendo del número de participantes** |
| 20 eta 79 kide bitarte | 50 | De 20 a 79 participantes |
| 80 eta 120 kide: | 60 | De 80 a120 participantes |
| 121 kidetik gora | 70 | Más de 121. |
| **Parte hartuko duten emakume/gizon kopuruaren arabera:** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Dependiendo del número de mujeres/hombres participantes** |
| Orekatua (%40 - 60) | 10 | Equilibrio (40 – 60 %) |
| Desoreka | 5 | Desequilibrio |
| Gizonak/emakumeak soilik | 0 | Sólo hombres / mujeres |

| | | |
|---|---|---|
| **Jarduera euskaraz garatzeko hartu diren neurriak** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Medidas adoptadas para garantizar la presencia del euskera en la actividad.** |
| idatzizko eskarri guztietan euskarari lehentasuna ematen zaio. | **2** | Se prioriza el uso del euskera en todos los soportes escritos. |
| Konpartsako kideei ematen zaizkien argibideetan euskarari lehentasuna ematen zaio.<br>(ahozko zein idatzizkoa) | **4** | Se prioriza el uso del euskera en las indicaciones que se les da a los miembros de la comparsa (oral y escrita) |
| Desfilerako aukeratutako kanten artean euskal kanturik ere bada | **4** | Se ha introducido alguna canción en euskera el el repertorio de música del desfile |

| | | |
|---|---|---|
| **Inauteri Batzordean Parte-hartze aktiboa** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Participación activa en la Comisión de Carnavales** |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**INAUTERIETAKO EKINTZA BAT ANTOLATZEN DUTEN ENTITATEAK**
**ENTIDADES QUE ORGANIZAN UNA ACTIVIDAD DENTRO DE LA PROGRAMACIÓN DE CARNAVALES**

| | | |
|---|---|---|
| Inauterietako ekintza bat antolatzen duen elkartea bada | **75 puntu bitarte/ Hasta 75 puntos** | Si es una Asociación que organiza una actividad de carnaval |

| **Herritarren esku hartzea sustatzea, beste entitate eta eragile batzuekin lankidetza.** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Promoción de la participación ciudadana, colaboración con otras entidades y agentes.** |
|---|---|---|
| •Jarduera elkarte batek baino gehiagok antolatzea | **2** | •Actividad organizada por más de una asociación |
| •Herritarrek parte hartzeko aukera ematea | 4 | •Oportunidad para la participación ciudadana |
| •Boluntarioen lana | **4** | •Trabajo de voluntarios y voluntarias |

| **Proposatutako programa / jardueren antzekorik ez izatea (proposamen berritzaileak).** | **5 puntu bitarte/ Hasta 5 puntos** | Inexistencia de programas / actividades similares a las propuestas (propuestas innovadoras). |
|---|---|---|
| •Jarduera berria | **3** | •Programa/actividad nueva |
| •Elkarte honek besterik ez du egiten | **2** | •Sólo lo realiza esta asociación |

| **Programaren ibilbidea eta proiekzioa** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Trayectoria y proyección del programa.** |
|---|---|---|
| **Ibilbidea:** | | Trayectoria: |
| •Urte kopurua, noiztik egiten den programa / jarduera | **3** | •Nº de años que lleva realizándose el programa / actividad |
| **Proiekzioa:** | | Proyección: |
| Elkartearen inguruko proiekzio | **2** | •Con proyección en el entorno de la asociación |
| •Herri mailako proiekzioa | **4** | •Con proyección en el municipio. |
| • Eskualdeko proiekzio | **6** | •Con proyección en la comarca |
| • Eskualdetik aratagoko proiektzioa | **7** | •Con proyección más allá de la comarca |

| **Parte-hartzaile kopuruaren arabera** | **20 puntu bitarte/ Hasta 20 puntos** | **Dependiendo del número de participante** |
|---|---|---|
| • 20 eta79 kide bitarte | **5** | • De 20 a 79 participantes |
| • 80 eta 120 kide: | **10** | • De 80 a120 participantes |
| • 121 kidetik gora | **20** | • Más de 121 participantes |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

| | | |
|---|---|---|
| **Parte hartuko duten emakume/gizon kopuruaren arabera:** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Dependiendo del número de mujeres/hombres participantes** |
| •Orekatua (%40 - 60) | **10** | •Equilibrio (40 – 60 %) |
| •Desoreka | **5** | •Desequilibrio |
| •Gizonak/emakumeak soilik | **0** | •Sólo hombres / mujeres |
| **Jarduera euskaraz bada** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Si se desarrolla la actividad en euskera** |
| ●Dena euskaraz bakarrik | **10** | ●Todo únicamente en euskera |
| ●Gehiena euskaraz | **8** | ●Mayoritariamente en euskera |
| ●Dena elebitan | **5** | ●Todo en bilingüe |

| | | |
|---|---|---|
| **Inauteri Batzordean Parte-hartze aktiboa** | **10 puntu bitarte/ Hasta 10 puntos** | **Participación activa en la Comisión de Carnavales** |

- *Dirulaguntza jasotzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.*

- *El mínimo de puntos para obtener subvención será de 20 puntos.*

**6.- Dirulaguntza ordaintzea.**

Dirulaguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

% 80 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

% 20 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Ezarritako irizpideak aplikatu ondoren, erakunde eskatzaileei ez bazaie aurrekontu erabilgarri osoa esleitu dirulaguntzak hainbanaketaren bidez birkalkulatu ahal izango dira, teknikari arduradunak horrela proposatzen badu, partida agortu arte,

**6.- Abono de la subvención.**

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

80 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

20 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

Si, una vez aplicados los criterios establecidos en las bases específicas, no se hubiera asignado a las entidades solicitantes el total del presupuesto disponible, se podrá, a propuesta de la/el técnica/o responsable, recalcular las subvenciones, mediante



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eskatutako dirulaguntza osoa lortu ez duten erakunde onuradunen artean

prorrateo, hasta el agotamiento de la partida, entre las entidades beneficiarias que no hubieran obtenido el total de la subvención solicitada.

**7.- Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2025ko maiatzak 8.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

**Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.**

**7.- Justificación de la subvención.**

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 8 de mayo de 2025.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

**Nota importante: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net